

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzurako goi mailako euskara teknikarien lanpostu bat, gehienez ere, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko sarrera-prozeduraren deialdia.

Deialdiaren lege-erreferentzia: 2703/2022 Ebazpena, urriaren 19koa, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzurako goi mailako euskara teknikarien lanpostu bat, gehienez ere, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko sarrera-prozeduraren deialdia, hori guztia enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko egonkortze-prozesuen esparruan (2022ko azaroaren 7an argitaratua, 219. NAO).n).

OPOSIZIO FASEKO PROBA

Proba mota: 4 aukerako test galdetegia

Galdera kopurua: 89

Proba egiteko denbora: 3 ordu

Probaren balioa: 30 puntu

Iruñean, 2023ko azaroaren 24an

**EZ ZABALDU GALDETEGIA,
EPAIMAHAIK HAS ZAITEZKEELA ESAN ARTE**

1. Aukeratu erantzun OKERRA. Espainiako Konstituzioaren 62. artikuluan xedatutakoaren arabera, Erregeari dagokio:

- a) Legeak berronestea eta aldarrikatzea.
- b) Estatuaren legegintza-ahala gauzatzea.
- c) Gorte Nagusiak deitzea eta desegitea, eta hauteskundeetara deitzea.
- d) Erreferendumera deitzea Konstituzioan aurreikusitako kasuetan.

2. Aukeratu erantzun ZUZENA. Espainiako Konstituzioaren 97. artikuluan xedatutakoaren arabera:

- a) Gobernuari dagokio Indar Armaturen buruzagi goren izatea.
- b) Gobernuak zuzentzen ditu barne-politika eta kanpo-politika, administrazio zibila eta militarra eta Estatuaren defentsa. Berak gauzatzen ditu funtzio exekutiboa eta erregelamendu-ahala.
- c) Gobernuak Estatuaren legegintza-ahala gauzatzen du eta Espainiako herria ordezkatzeko du.
- d) Denak dira zuzenak.

3. Aukeratu erantzun ZUZENA. Europar Batasunari dagokionez:

- a) Europako Parlamentuak legegintza eta aurrekontugintza beteko ditu Kontseiluarekin batera.
- b) Kontseilu Europarrak legegintza-eginkizunak beteko ditu.
- c) Kontseiluak legegintza eta aurrekontugintza beteko ditu Europar Batasuneko Justizia Auzitegiarekin batera.
- d) Denak dira okerrak.

4. Aukeratu erantzun ZUZENA. Kontseilu Europarrari dagokionez:

- a) Estatu kideetako estatuburuek edo gobernuburuek eta Europako Parlamentuko lehendakariak osatuko dute.
- b) Zuzeneko sufragio unibertsal aske eta isilpeko hautatuko dira Kontseilu Europarreko kideak.
- c) Europako Parlamentuak bere diputatuen artetik hautatuko ditu Kontseilu Europarreko kideak.
- d) Estatu kideetako estatuburuek edo gobernuburuek, Kontseiluko lehendakariak eta Batzordeko lehendakariak osatuko dute.

5. Aukeratu erantzun OKERRA. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoaren arabera:

- a) Iruña, Elizondo, Tuter, Zangoza eta Erriberriko merindade historikoen barnean dauden udalerriek osatzen dute Nafarroako Foru Komunitateko lurraldea.
- b) Nafarroa foru erkidego bat da, araubide, autonomia eta erakunde berekiak dituen, banaezina, Espainiako Nazioaren barnean sartua eta solidarioa haren herri guztiekin.
- c) Euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunetan.
- d) Nafarrek gainerako espainiarrek dituzten oinarrizko eskubide, askatasun eta betebeharrak berberak dituzte.

6. Aukeratu erantzun ZUZENA. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoaren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera:

- a) Nafarroako lege orokorrei jarraikiz auzotasun administratiboa Nafarroako edozein udalerritan duten europarrek dute nafartasun politikoa.
- b) Estatuko lege orokorrei jarraikiz, auzotasun administratiboa Nafarroako edozein udalerritan duten espainiarrek dute nafartasun politikoa.
- c) Nafarroako lege orokorrei jarraikiz, auzotasun administratiboa Espainiako edozein udalerritan duten nafarrek dute nafartasun politikoa Nafarroan jaio badira.
- d) Denak dira okerrak.

7. Aukeratu erantzun OKERRA. Nafarroako Parlamentuari dagokionez:

- a) Nafarroako Parlamenturako hauteskundeei buruzko 16/1986 Foru Legearen arabera, Nafarroako Parlamentua 50 foru parlamentarik osatuko dute.
- b) Nafarroako Parlamentua bortxaezina da.
- c) Parlamentuko Erregelamendua eta bere aurrekontuak Nafarroako Gobernuak onetsiko ditu.
- d) Parlamentuak Nafarroako herria ordezkatzeko du, legegintzarako ahalmena erabiltzeko eta Nafarroako aurrekontuak eta kontuak onesten.

8. Aukeratu erantzun OKERRA. Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak hauxe egin dezake:

- a) Gomendioak zuzendu edo legeak ezarritako agindua gogorarazi organo eskudunei eta administrazio publikoen zerbitzuko langileei.
- b) Bere esku-hartzeak eten ditzake bidezkoa den erreklamazioa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epeak.
- c) Lege-diaren hutsuneak ikusarazi eta gomendioak eman, administrazioaren jarduna eta zerbitzu publikoak behar bezain objektiboak izan daitezen eta herritarren eskubideak modu eraginkorrean berma daitezen.
- d) Estatuko arartekoarengana jotzen ahalko du, edota beste autonomia erkidego batzuetako ararteko edo antzeko instituzioarengana.

9. Aukeratu erantzun ZUZENA. Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 12. artikulua araber, Nafarroako Gobernuaren erabakiak hauek izan daitezke:

- a) Legegintzako foru dekretua, foru dekretua edo erabakia.
- b) Legegintzako foru dekretua, foru dekretua edo foru agindua.
- c) Lehendakariaren foru dekretua edo foru agindua.
- d) Denak dira zuzenak.

10. Aukeratu erantzun ZUZENA. Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 24. artikulua araber, Nafarroako Gobernuko lehendakariaren izendapena:

- a) Parlamentuari dagokio, foru lege bidez.
- b) Erregeari dagokio, errege dekretu bidez.
- c) Kongresuari dagokio, lege bidez.
- d) Denak dira okerrak.

11. Aukeratu erantzun OKERRA. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 140. artikulua araber, Administrazioen arteko harreman printzipioa da:

- a) Leialtasun instituzionala.
- b) Elkarlanean aritzea.
- c) Autokudeaketaren erantzukizuna.
- d) Lurraldearteko elkartasuna.

12. Aukeratu erantzun ZUZENA. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 3. artikulua arabera, administrazio publikoek honako printzipio hauetan oinarritzen dute bere jarduna:

- a) Hierarkia, batasun, deskontzentrazio eta deskoordinazioan.
- b) Efikazia, hierarkia, zentralizazio, deskontzentrazio eta koordinazioan.
- c) Efikazia, hierarkia, deszentralizazio, deskontzentrazio eta koordinazioan.
- d) Efikazia, batasun, kontzentrazio eta koordinazioan.

13. Aukeratu erantzun ZUZENA. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-Sektore Publiko Institutuzionalari buruzko 11/2019 Foru Legearen 3. artikulua arabera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, bere helburuak betetzeko:

- a) Hierarkikoki ordenatutako hainbat organoz osaturik, nortasun juridiko anitzarekin dihardu.
- b) Horizontalki ordenatutako hainbat organoz osaturik, nortasun juridiko bakarrarekin dihardu.
- c) Hierarkikoki ordenatutako hainbat organoz osaturik, nortasun juridiko bakarrarekin dihardu.
- d) Horizontalki ordenatutako hainbat organoz osaturik, nortasun juridiko anitzarekin dihardu.

14. Aukeratu erantzun ZUZENA. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-Sektore Publiko Institutuzionalari buruzko 11/2019 Foru Legearen 33. artikulua arabera, departamentu bakoitzean dauden unitate organiko horizontalak, zuzenbide-arloko, giza baliabideen arloko eta aurrekontu-kudeaketaren arloko gaien eskumenak egikaritzen dituztenak dira:

- a) Aholkularitza zerbitzuak.
- b) Kontu-hartzailatza zerbitzuak.
- c) Administrazio atalak.
- d) Idazkaritza tekniko nagusiak.

15. Aukeratu erantzun ZUZENA. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 39. artikulua arabera, Administrazio Zuzenbideari dagozkion administrazio publikoen egintzei dagokienez:

- a) Ondorioak izango dituzte ematen diren hurrengo egunetik epaitegi batek hala adierazten duenean.
- b) Presuntzioz baliozkotzat hartuko dira eta ondorioak izango dituzte, soilik errekurso-epea amaitutakoan eta egintza irmo bihurtutakoan.
- c) Presuntzioz baliozkotzat hartuko dira eta ondorioak izango dituzte ematen diren egunetik, haietan besterik xedatzen ez bada.
- d) Denak dira okerrak.

16. Aukeratu erantzun ZUZENA. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 122. artikulua arabera, gora jotzeko errekurtsolari dagokionez:

- a) Errekurtsoa jartzeko epea hilabetekoa izango da egintza espresua denean eta errekurtsoren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da.
- b) Errekurtsoa jartzeko epea hilabetekoa izango da egintza espresua denean eta errekurtsoren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea ere hilabete batekoa izango da.
- c) Errekurtsoa jartzeko epea hilabetekoa izango da egintza espresua denean eta errekurtsoren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko eperik ez da zehazten.
- d) Errekurtsoa jartzeko epea hiru hilabetekoa izango da egintza espresua denean eta errekurtsoren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko eperik ez da zehazten.

17. Aukeratu erantzun OKERRA. Langile Publikoen Estatutua arautzen duen 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuari dagokionez:

- a) Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileria funtzionario publikoek, behin-behineko langileek eta langile lan-kontratadunek osatuko dute.
- b) Funtzionarioak zerbitzu berezietan egonen dira Foru parlamentariaren izaera hartzen dutenean, administrazio-egoera horretan sartzeko aukera baliatu nahi badute.
- c) Eszedentzia borondatezkoa, berezia edo nahitaezkoa izan daiteke.
- d) Oinarritzko ordainsari pertsonalak honakoak dira: dagokion mailaren hasierako soldata, graduaren ordainsaria eta familia laguntza.

18. Aukeratu erantzun ZUZENA. Funtzionario izaera galduko da:

- a) Norberak propio uko eginda.
- b) Diziplina espediente baten bidez edo epai judicial irmo baten bidez zerbitzutik bereizitakoan.
- c) Borondatezko eszedentziatik itzultzea erabaki ondoren, hilabeteko epean ez bada gauzatzen.
- d) Denak dira zuzenak.

19. Aukeratu erantzun ZUZENA. Zenbateko txikiko kontratuen gaineko araubide bereziaren arabera:

- a) Zenbateko txikiko kontratuak dira balio zenbatetsia 40.000 euro baino gehiagokoa ez dutenak, hornidura edo zerbitzuen kasuan, edo 15.000 euro baino gehiagokoa ez dutenak, obra kontratuak direnean.
- b) Zenbateko txikiko kontratuak tramitatzeko, aldez aurreko kreditu erreserba egitea beharrezkoa izango da beti, eta faktura aurkeztea beharrezkoa izango da, hala badagokio, kontratazio organoa kide den adjudikazio botereari aplikatu beharreko aurrekontu- eta kontabilitate-araudiaren arabera.
- c) Horniduren eta segidako zerbitzu-emateen kasuan, zenbateko txikiko kontratuen prozeduraren erabilera posible izanen da, bakarrik, baldin balio zenbatetsia, hurrengo 48 hilabeteetarako aurreikusitako gastua aintzat harturik, ez bada 15.000 eurotik gorakoa.
- d) Denak dira zuzenak.

20. Aukeratu erantzun ZUZENA. Dirulaguntzei buruzko 11/2005 Foru legearen 17. artikulua arabera, dirulaguntzak zuzenean eman ahalko dira:

- a) Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean berariaz izendatutakoak, Parlamentuak onetsitako zenbatekoarekin.
- b) Erregelamendu-mailako arauen batek aginduta edo zenbatekoa zehaztuta administrazioak ematen dituen horien kasuan.
- c) Ohiko moduan, hartzaile bat hautaturik beste edozein interesduni dirulaguntza eskuratzeko aukera kentzen zaionean.
- d) Denak dira zuzenak.

21. Aukeratu erantzun ZUZENA. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko 5/2018 Foru Legearen arabera, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea mugatu edo ukatuko da:

- a) Eskatzaileak eskaeran ez badu motibaziorik edo arrazoirik azaldu.
- b) Eskatzailea pertsona juridikoa bada.
- c) Informazioa ematearen ondorioz segurtasun publikoa kaltetzen badu.
- d) Denak dira zuzenak.

22. Aukeratu erantzun OKERRA. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko 5/2018 Foru Legean, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzeko prozedurari dagokionez:

- a) Eskaerak Nafarroako Foru Komunitateko hizkuntza ofizialetako edozeinetan aurkezten ahalko dira.
- b) Eskatzaileak informazioa eskatzeko arrazoiak azaldu behar ditu eta hauek nahikoak ez badira, eskatzaileari eskatuko zaio zehaztu dezala.
- c) Eskaera ahoz egiten denean, dela unitate erantzuleen aurrean agertuz, dela informazio-bulegoetan edo telefono bidezko komunikazioaren bitartez, hura formatu elektronikoa jasoko da.
- d) Informazioa eskuratzeko eskubidetik legez salbuetsita dagoen informazioari buruzko eskaerak ez dira tramitera onartuko.

23. Aukeratu erantzun OKERRA. Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoaren arabera:

- a) Legeak xede du Espainiako ordenamendu juridikoa egokitzea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendura, eta haren xedapenak osatzea.
- b) Legeak xede du pertsona juridikoen eta herritarren eskubide digitalak bermatzea, Konstituzioak 18.4 artikuluan jasotako aginduan xedatutakoaren arabera.
- c) Lege organiko hau ez zaie aplikatuko hildako pertsonen datuen tratamenduei, Legearen 3. artikulua xedatutakoa gorabehera.
- d) Adingabe baten datuen tratamendua berak emandako adostasunean oinarritu ahalko da hamalau urte baino gehiago baditu, ez bestela.

24. Aukeratu erantzun ZUZENA. Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoak honakoa jasotzen du:

- a) Tratamendua mugatzeko eskubidea.
- b) Datuak zuzentzeko eskubidea.
- c) Eramangarritasun-eskubidea.
- d) Denak dira zuzenak.

25. Aukeratu erantzun ZUZENA. Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriari buruzko 3/2007 Lege Organikoaren arabera:

- a) Emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera-berdintasuna antolamendu juridikoa eratzen duen printzipioa da.
- b) Emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera-berdintasunaren printzipioa ez da aplikagarria enplegu pribatuaren esparruan.
- c) Botere publikoek neurri bereziak hartuko dituzte emakumeen eta gizonen mesedetan, gizonei begira egiteko berdintasun-egoera nabariak zuzentzeko.
- d) Pertsona kaltetuek soilik eskatu ahal izango diete auzitegiei emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eskubidea babestea, Konstituzioan ezarritakoarekin bat etorriz.

26. Aukeratu erantzun OKERRA. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legearen arabera, Euskarabideari ere badagokio:

- a) Genero-ikuspegia txertatzea kontratazio publikoan.
- b) Dirulaguntzen oinarri arautzaileetan berdintasun klausulak jasotzea, salbu eta laguntzaren izaera dela-eta justifikaturik badago halako klausularik ez egotea.
- c) Hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiltzea sortzen dituen agiri, formulario, inprimaki edo euskarrietan.
- d) Berdintasunerako Nafarroako Plan Estrategikoa prestatzea eta onestea, Nafarroako Berdintasunerako Kontseiluak txostena eman ondoren.

27. Aukeratu erantzun ZUZENA. Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen arabera:

- a) Administrazio Publikoek ezin diete interesdunei euskaraz aurkeztutako dokumentuen itzulpena eskatu.
- b) Nafarroako herritar guztiek dute Administrazio Publikoekin bi norabideko harremana euskaraz egiteko eskubidea.
- c) Ereku mistoko toki entitateek gaztelania eta euskara erabiliko dituzte beren xedapen eta argitalpenetan.
- d) Ereku ez-euskaldunean Administrazio Publikoek interesdunei euskaraz aurkeztutako dokumentuen itzulpena eskatu ahal izango diete.

28. Aukeratu erantzun ZUZENA. Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen arabera:

- a) Administrazio Publikoek beharrezko diren baliabide pertsonalak, teknikoak eta materialak paratuko dituzte euskarazko irakaskuntzarako eskubidea bermatzeko.
- b) Ikasketa plan ofizial guztiek euskararen irakaskuntza bermatu beharko dute.
- c) Ereku ez-euskaldunean euskara irakaskuntzan sartuko da progresiboki eta derrigorrez, behar adina ikastetxe publiko sortuz.
- d) Nafarroako eremu euskaldunean euskarazko irakaskuntza nahitaezkoa da eta ezin da salbuetsi.

29. Aukeratu erantzun ZUZENA. Nafarroako Administrazio Publikoetan Euskararen Erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretuaren arabera, zerbitzu zentraleri dagokienez:

- a) Herritarrei, oro har, igorritako jakinarazpenak eta komunikazioak ele biz idatzi beharko dira.
- b) Pertsona fisikoek edo juridikoek euskaraz hasitako espediente administratiboei dagokienez, espediente horietatik eratorritako komunikazioak ele biz igorri beharko zaizkie interesdunei.
- c) Herritar ororendako diren inprimakiak eta idazki ofizialak ele biz idatzi beharko dira.
- d) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren komunikazio eta irudi arloko elementu orokor guztiek ele biko errealitatea islatuko dute.

30. Aukeratu erantzun ZUZENA. Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna:

- a) Frantziak 1999. urtean sinatu zuen eta berretsi egin du.
- b) Espainiak 1992. urtean sinatu zuen, baina ez du berretsi.
- c) Europar Batasunetik kanpo dauden estatu batzuek sinatu dute.
- d) Europar Batasuneko estatu kide guztiek sinatu eta berretsi dute.

31. Aukeratu erantzun ZUZENA. Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren III. zatiko atal espezifikoetako bat da:

- a) Komunikabideak.
- b) Landa garapena.
- c) Kirola.
- d) Itzulpengintza.

32. Aukeratu erantzun OKERRA. Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren bidezko babesa du:

- a) Frantsesak.
- b) Hebreerak.
- c) Aranerak.
- d) Kurduerak.

33. Aukeratu erantzun ZUZENA. Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen arabera, zein udalerrri daude eremu euskaldunean?

- a) Orbara eta Garde.
- b) Urrotz eta Donamaria.
- c) Abaurrepea/Abaurrea Baja eta Goñi.
- d) Imotz eta Orotz-Betelu.

34. Aukeratu erantzun ZUZENA. Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen arabera:

- a) Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala gaztelaniaz eta euskaraz argitaratuko da, aldibereko edizio bananduetan.
- b) Eremu ez-euskaldunean, izendapen ofiziala euskarazkoa ere izanen da.
- c) Irakaskuntzan A eta D hizkuntza ereduak ezarriko dira.
- d) Eremu euskaldunean euskara nahitaez irakatsiko da, hezkuntza maila guztietan eta salbuespenik gabe.

35. Aukeratu erantzun ZUZENA. Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen arabera, Nafarroako Gobernuak:

- a) Komunikabide sozialei dagokienez, ez du esku-hartzerik egingo.
- b) Komunikabide sozial publiko eta pribatuetan euskararen presentzia behatuko du, esku-hartze gehiagorik egin gabe.
- c) Komunikabide sozial publiko eta pribatuetan euskara sustatzeko, diruz eta materialez laguntzeko planak gauzatuko ditu.
- d) Komunikabide sozial publikoetan bakarrik, euskara sustatzeko, diruz eta materialez laguntzeko planak gauzatuko ditu.

36. Aukeratu erantzun ZUZENA. Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretuaren arabera, euskara merezimendu moduan baloratzerakoan:

- a) C2 mailaren ezagutza-maila egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiria duenari euskararen ezagutzaren baloraziorik handiena emanen zaio.
- b) A2 maila izanez gero, gehienez eman daitekeen puntuazioaren 2/5 jasoko da.
- c) A1 maila izanez gero, gehienez eman daitekeen puntuazioaren 1/3 jasoko da.
- d) B1 maila izanez gero, gehienez eman daitekeen puntuazioaren 3/6 jasoko da.

37. Aukeratu erantzun ZUZENA. Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretuaren arabera, Euskarabidea-Euskararen Nafar Inститutuaren zeregina da koordinazio-organo moduan aritzea:

- a) Nafarroako Administrazio Publikoen artean.
- b) Nafarroan dauden Estatuko Administrazioaren egoitzen artean.
- c) Nafarroako toki entitateetako euskara zerbitzuen artean.
- d) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen artean.

38. Aukeratu erantzun ZUZENA. Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretuaren arabera:

- a) Eremu euskaldunean dauden toki entitateetako zerbitzu zentraletara zuzendutako idazki ofizialak eta komunikazioak euskaraz soilik idatzita egon daitezke.
- b) Eremu euskaldunean dauden toki entitateetako zerbitzu zentraletara zuzendutako idazki ofizialak eta komunikazioak ele biz idatzi beharko dira.
- c) Eremu mistoan dauden toki entitateetako zerbitzu zentraletara zuzendutako idazki ofizialak eta komunikazioak euskaraz soilik idatzita egon daitezke.
- d) Eremu mistoan dauden toki entitateetako zerbitzu zentraletara zuzendutako idazki ofizialak eta komunikazioak ele biz idatzi beharko dira.

39. Aukeratu erantzun OKERRA. Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan adierazten den helburuetako bat da:

- a) Europar guztiei prestakuntza egokia ematea, nazio batetik bestera mugitzeko erraztasuna emateko.
- b) Nazioarteko komunikazio eraginkorra sustatzea.
- c) Europako eskualdeetako eta gutxitutako hizkuntzak babestea.
- d) Europa eleanitz eta kulturazko beharrak asetzea.

40. Aukeratu erantzun OKERRA. Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren ezaugarrietako bat da:

- a) Malgua izatea.
- b) Irekia izatea.
- c) Ez dogmatikoa izatea.
- d) Egonkorra izatea.

41. Aukeratu erantzun ZUZENA. Zer hizkuntz jarduera definitzen ditu Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuak?

- a) Harrera, ekoizpena, elkarreragina eta bitartekotza.
- b) Entzumena, mintzamina, idazmina eta irakurmena.
- c) Ulermena, ekoizpena eta bitartekotza.
- d) Ulermena, mintzamina eta idazmina.

42. Aukeratu erantzun ZUZENA. Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen 303/2019 Foru Dekretuaren arabera, erakunde horren zuzendaritza organoak dira:

- a) Euskararen Nafar Kontseilua eta Zuzendari kudeatzailea.
- b) Gobernu Kontseilua eta Zuzendari kudeatzailea.
- c) Euskararen Nafar Kontseilua eta Zuzendari Nagusia.
- d) Kontseilaritza eta Zuzendari Nagusia.

43. Aukeratu erantzun OKERRA. Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen 303/2019 Foru Dekretuaren arabera, erakunde horren zerbitzuetako bat da:

- a) Euskararen Plangintza eta Giza Baliabideen Zerbitzua.
- b) Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua.
- c) Hizkuntza Baliabideen Zerbitzua.
- d) Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua.

44. Aukeratu erantzun OKERRA. Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen 303/2019 Foru Dekretuaren arabera, Euskara Sustatzeko Atalaren eginkizunetako bat da:

- a) Herritarrei hizkuntza eskubideen berri ematea.
- b) Nafarroako Euskararen Mediateka kudeatzea.
- c) Helduei euskara irakastera bideraturiko laguntzak kudeatu eta irakaskuntza mota hori ematen duten entitateekin lankidetzak hitzarmenak proposatzea.
- d) Euskararen Liburutegi Espezializatua kudeatzea.

45. Aukeratu erantzun ZUZENA. Nafarroako Gobernuaren Euskararen Lehendabiziko Plan Estrategikoak proposatzen duen paradigma berriaren arabera, zein da gaingaitu beharreko ikuskera?

- a) Munduari irekita dagoen hizkuntza izatea.
- b) Lanerako duen erabilgarritasunaren gaineko eztabaida sortzea.
- c) Inbertsioari loturiko hizkuntza izatea.
- d) Hizkuntza bat, era berean eta ezberrik gabe, etorkizunari, berrikuntzari eta gizarte globalari elkartua izatea.

46. Aukeratu erantzun OKERRA. Nafarroako Gobernuaren Euskararen Lehendabiziko Plan Estrategikoko ardatz estrategikoetako bat da:

- a) Hizkuntza esparrua.
- b) Ekonomia eragilea.
- c) Hizkuntza baliabideak.
- d) Zerbitzu publikoak.

47. Aukeratu erantzun ZUZENA. Nafarroako Gobernuaren Euskararen Lehendabiziko Plan Estrategikoko zein ardatz estrategikok du helburu espezifiko Nafarroako toponimia arautzea?

- a) Hizkuntza esparruak.
- b) Prestigioak eta erakargarritasunak.
- c) Zerbitzu publikoak.
- d) Gizarte erabilerak.

48. Aukeratu erantzun ZUZENA. VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, Nafarroako gazteen artean (16-24 urte) euskararen ezagutzaren bilakaera 1991tik 2016ra honakoa izan da:

- a) % 2,1 jaitsi da.
- b) % 2,1 igo da.
- c) % 11,3 igo da.
- d) % 15,8 igo da.

49. Aukeratu erantzun ZUZENA. VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 2016an eremu hurbilean eta formalean euskararen erabileraren daturik handiena honako pertsonekin dago:

- a) Lagunekin.
- b) Udal zerbitzukoekin.
- c) Osasun zerbitzukoekin.
- d) Dendariekin.

50. Aukeratu erantzun ZUZENA. VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, eremu euskaldunean Nafarroako Gobernuak euskara sustatzeko egindako lanari buruzko jarrerak:

- a) Aldekoak dira % 45,6an.
- b) Aldekoak dira % 29,2an.
- c) Aurkakoak dira % 45,6an.
- d) Aurkakoak dira % 2,3an.

51. Aukeratu erantzun ZUZENA. Zein da 2021eko Hizkuntzen erabileraren kale neurketaren akats tartea?

- a) \pm % 15.
- b) \pm % 10.
- c) \pm % 0,3.
- d) \pm % 0,01.

52. Aukeratu erantzun ZUZENA. 2021eko Hizkuntzen erabileraren kale neurketaren arabera, 1989tik 2021era Nafarroan euskararen erabileraren bilakaerari dagokionez:

- a) Ez du aldaketa nabarmenik izan.
- b) Aldaketa nabarmena izan du.
- c) Etengabeko hazkundera izan du.
- d) Etengabeko atzeraldia izan du.

53. Aukeratu erantzun ZUZENA. 2021eko Hizkuntzen erabileraren kale neurketari dagokionez, Nafarroako zenbat udalerritan jaso dira datuak?

- a) 10etan.
- b) 27tan.
- c) 51tan.
- d) 86tan.

54. Aukeratu erantzun ZUZENA. Nafarroako Gobernuak 2018an jasotako datu soziolinguistikoen arabera:

- a) Eremu euskaldunean %72k du euskara hutsa lehen hizkuntza.
- b) 4. gune soziolinguistikoan %63k du euskara hutsa lehen hizkuntza.
- c) Biztanleriak ez du euskara edo gaztelania ez den beste lehen hizkuntzarik.
- d) Biztanleriaren % 5,8k du euskara hutsa lehen hizkuntza.

55. Aukeratu erantzun ZUZENA. Nafarroako Gobernuak 2018an jasotako datu soziolinguistikoen arabera:

- a) % 30ek du euskara jakitearen A1 edo A2 egiaztapena.
- b) % 15ek du euskara jakitearen B1 edo B2 egiaztapena.
- c) % 30ek du euskara jakitearen C1 edo gaineko egiaztapena.
- d) % 15ek ez du euskara jakitearen egiaztapenik.

56. Aukeratu erantzun OKERRA. Nafarroako Gobernuak 2018an jasotako datu soziolinguistikoei dagokienez, azterketa horren ezaugarrietako bat da:

- a) Nafarroako 12 urteko eta urte gehiagoko biztanleria izan da populazio esparrua.
- b) Lagina 5.792 inkestak osatu dute.
- c) Datu-bilketa telefono eta Internet bidezkoa izan da.
- d) Ausazko laginketa bakuna erabili da.

57. Aukeratu erantzun ZUZENA, Euskaltzaindiaren hizkuntza-araudiaren arabera:

- a) Alacanten, 2023ko urriak 14ean, 04:00tan.
- b) Valentzian, 1987ko urtarrilaren 8an, 14:15ean.
- c) Donostian, 1995. urteko maiatzaren 11an, hiruetan.
- d) Iruñea, 2020. urteko azaroak 10ean, zazpiretan.

58. Aukeratu erantzun ZUZENA, Euskaltzaindiaren hizkuntza-araudiaren arabera:

- a) Honezkero ez du merezi egoera bestelakoa izan zitekeela pentsatzeak.
- b) Ikasle berria maisuaren kutunena bilakatuko zelaren beldurra piztu zen gelan.
- c) Igela printze eder batean bihurtuko delako baliabidea ohikoa da ipuingintzan.
- d) Suspenditzea merezi duen seinale da irakasle guztiak bat etortzea.

59. Aukeratu erantzun ZUZENA, Euskaltzaindiaren hizkuntza-araudiaren arabera:

- a) Ingeles eta euskaldunek galdera- eta harridura-markak berdin erabiltzen dituzte.
- b) Literatur azterketako behin-betiko kalifikazioak behin-behinekoen ondoren aterako dira.
- c) Zehatz-mehatz aztertu behar da eskola esparrua eta familia esparruaren eragina umeen hizkuntz gaitasunean.
- d) Ikasketa-buruak hizkuntz-egiaztapena eta hizkuntza eskubideei buruzko hitzaldia emango du.

60. Euskaltzaindiaren hizkuntza-araudiaren arabera, zein EZ da baliokidea?

- a) Nerabeak gidabaimena lortzeko, gurasoek ordaindu beharko diote.
- b) Nerabeak gidabaimena lortuko badu, gurasoek ordaindu beharko diote.
- c) Nerabeak gidabaimena lortuz gero, gurasoek ordaindu beharko diote.
- d) Nerabeak gidabaimena lortu dezan, gurasoek ordaindu beharko diote.

61. Aukeratu segida OKERRA, Euskaltzaindiaren hiztegi arauemailaren arabera, "A" itsasiari dagokionez:

- a) Aitona, anaia, balea, birjina.
- b) Gauza, ordena, burdina, panpina.
- c) Harea, makila, erregina, kontrola.
- d) Pertsonaia, paisaia, animalia, aitzakia.

62. Aukeratu erantzun ZUZENA, Euskaltzaindiaren hiztegi arauemailaren arabera:

- a) Alkate ohiak artean lanpostuan zegoela sinatu zuen ebazpena.
- b) Hiru froga gainditu behar dira EGA titulua erdiesteko.
- c) Gaixotasuna sendatzeko hiru sesio aholkatzen ditu medikuak.
- d) Hizlaria hitz egiten hasi orduko atzeman genion bertako doinua.

63. Aukeratu erantzun ZUZENA, Euskaltzaindiaren hiztegi arauemailaren arabera:

- a) Soberan gelditu zen alea nahitaez saldu behar zen, balio handikoa baitzen.
- b) Udalaren ondoko plazako banku batean eserita itxaron zion bere bikoteari.
- c) Gustoko zuen lepokoa, harribitxi garestia zuenez, balore handikoa zen.
- d) Produktu baten gutxi gorabeherako prezioa eta batez bestekoa ez dira berdinak.

64. Euskara Batuaren Eskuliburuaren arabera, zein EZ da baliokidea?

- a) Iritzi asko egonik ere, erabakia argi genuen.
- b) Iritzi asko zeudenez, erabakia argi genuen.
- c) Iritziak gorabehera, erabakia argi genuen.
- d) Iritzi asko egonagatik, erabakia argi genuen.

65. Aukeratu erantzun OKERRA, Euskara Batuaren Eskuliburuaren arabera:

- a) Partida hasi besterik ez zen egin euria hasi zuenean.
- b) Alproja halakoa! Esandakoak lana ez egiteko amarruak besterik ez dira izan.
- c) Albistea irakurtzea eta laburtzea besterik ez duzu azterketa gainditzeko.
- d) Jaraunspena banatzeko ni besterik ez nau kontuan hartzen amonak.

66. Aukeratu erantzun OKERRA, Euskara Batuaren Eskuliburuaren arabera:

- a) Badirudi egun eskuinari botoa ematea ezkerrari ematea bezala dela.
- b) Messi eta Cristiano Ronaldo bezalako futbolariak oso ohikoak izan dira komunikabideetan.
- c) Autoa matxuratu zitzaion eta, hori gutxi balitz bezala, isuna jarri zioten.
- d) Van Goghek margotu zuena bezalako irudia egin zuen ikasleak ere.

67. Euskara Batuaren Eskuliburuaren arabera, galdegaiari dagokionez, zein EZ da baliokidea?

- a) Gaietik azaldu die ikasleei prozedura irakasleak.
- b) Irakasleak prozedura gainetik azaldu die ikasleei.
- c) Prozedura gainetik azaldu die irakasleak ikasleei.
- d) Irakasleak ikasleei gainetik prozedura azaldu die.

68. Aukeratu erantzun ZUZENA, Euskara Batuaren Eskuliburuaren arabera:

- a) Aurreko egunean bisitari bat etorri zen arratsalde osoan isildu ez zela.
- b) Azterketa gainditzeko ikasi beharko nukeena esango didazu, mesedez?
- c) Ahozko gaitasunari heldu behar zaio, zeini curriculumean erreferentzia egiten zaion.
- d) Prentsan agertu dira erabakiak hartzea legezkiekeen politikarien izenak.

69. Aukeratu erantzun ZUZENA, Euskara Batuaren Eskuliburuaren arabera:

- a) Adituek ez dute uste klima-aldaketa bakarrik suntsitzen ari denik hartz zuria.
- b) Krisialdiaren harira argitaratutako azkena da soldatak izoztea erabaki dutela.
- c) Barkatuko didazu baina utzi behar zaitut, presa handia dudala.
- d) Mila euroko xanpain botila ekarri duzu. Ez zaizu iruditzen gehiegitxo denik?

70. Aukeratu erantzun ZUZENA, Euskara Batuaren Eskuliburuaren arabera:

- a) Ez nion inori ere ez aitortu jolaskideak gezurretan harrapatzeko helburua nuela.
- b) Seguru nago informazio hori argitaratzeko ondorioa ez duela inork ere ez pairatuko.
- c) Inoiz ere ez dugu jakingo noiz sortu zen zuri-beltzeko argazkiak egitearen moda.
- d) Epaileak ez zuen inon ikusten lekukoa gezurretan ari zela susmatzeko arrazoirik, inon ere.

71. Aukeratu erantzun OKERRA, Euskara Batuaren Eskuliburuaren arabera:

- a) Nahikoa lan zuen irakasleak ikasleak isilarazteko, berritsu samarrak ziren-eta.
- b) Zalantza dut ardo nahikorik ekarri ote dudan, nahiko jende gaude-eta.
- c) Ustekabe handi samarra izan zen esleipena, zerrendan atzera samar zegoen-eta.
- d) Nahiko dirurik biltzea lortuko zuen zalantza zuen, kopuru handia samarra zen-eta.

72. Aukeratu erantzun ZUZENA, Euskara Batuaren Eskuliburuaren arabera:

- a) Sinestutak gaude “Pentsatzen dut, beraz, banaiz” esapidea Deskartesek esana zela.
- b) Entzunda nago itzulpen kaskar haiek ez zirela zeuk eginak.
- c) Sarraskirik gorrienak ikusita dituzten soldaduak gerrak sortuak dira.
- d) Autoa geure begien aurrean lapurtua izan omen da. Ez dut, ba, neuk ezer ikusi.

73. Aukeratu erantzun ZUZENA, Euskara Batuaren Eskuliburuaren arabera:

- a) BEZ gehituz gero, 1 €-ren aldea egon daiteke hainbat produkturen arteko prezioetan.
- b) Pandemian 1 m-eko distantzia ezarri zen DBH-ko ikasgeletako mahaien artean.
- c) NANA erakutsi behar da EGARA nahiz IHEOren azterketara aurkezteko.
- d) NAPIren egoitzan egingo dira IHEOk antolatutako C1-eko azterketak.

74. Aukeratu erantzun OKERRA, euskalkiei dagokienez:

- a) L. L. Bonapartek 8 euskalki jaso zituen 1863ko mapan.
- b) K. Zuazok euskalkien sailkapen berria egin zuen 2011n.
- c) K. Zuazok 5 euskalki jaso zituen 1997ko mapan.
- d) Batua sortu zenetik, euskalkiak gero eta gertuago daude.

75. Aukeratu erantzun OKERRA. Euskara batuari eta euskalkiei dagokienez, Euskaltzaindiak:

- a) 1973an aditz laguntzaile batua argitaratu zuen.
- b) 1984an Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egitasmoa abian jarri zuen.
- c) 1998an euskara batuaren ahoskera zaindua argitaratu zuen.
- d) 2003an Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa egitasmoa abian jarri zuen.

76. Aukeratu erantzun OKERRA. Euskaltzaindia sortu zenean:

- a) Euskaltzain guztiak aho batez agertu ziren estandarizazioaren alde.
- b) Euskaltzaindiaren helburuetako bat euskara bateratzea zen.
- c) Euskaltzaindiak behin-behinean bultzatu zuen euskara eredua gipuzkera izan zen.
- d) Estandarizazioaren aldeko euskaltzainen artean proposamen ezberdinak izan ziren.

77. Aukeratu erantzun ZUZENA. Joshua Fishmanen arabera, ahuldutako hizkuntza indarberritzea da:

- a) Hizkuntza bera “garai berrietarako” egokitzea. Bere baitarako gabezia eta trakestasunak-edo gaineratik kentzea. Oraingo gizartearen mintza- eta idatz-behar guztiei artez eta zalu erantzuteko prestatzea.
- b) Hizkuntza ahulari belaunez belauneko iraupen-bidea bermatzea eta hiztun elkarteari bere neurriko esparru bereziak zabaltzea.
- c) Galbidean doan hizkuntza jendeari erakustea, eta horretarako jantzi, osatu eta gaitu behar dena ez da lehenik eta behin hizkuntza, hiztuna baizik.
- d) Aginpidea eskuratuz, hizkuntza ahulari, ohikoez gain, goi-mailako funtzioak segurtatzea.

78. Aukeratu segida OKERRA, literatur generoari dagokionez:

- a) Aitzol, Lizardi, Lauaxeta, Orixe.
- b) A. Barriola, T. Alzaga, P. Lartzabal, M. Soroa.
- c) B. Etxepare, J. Leizarraga, J. P. Lazarraga, B. Gazteluzar.
- d) J. Mirande, R. Saizarbitoria, A. Urretabizkaia, H. Cano.

79. Aukeratu segida OKERRA, garaiari dagokionez:

- a) A. Oihenart, J. Tartas, S. Pouvreau, P. Agerre Axular.
- b) J. A. Mogel, P. A. Añibarro, J. P. Duvoisin, J. P. Lazarraga.
- c) N. Ormaetxea Orixe, K. Mitxelena, L. Etxepare, F. Irigarai Larreko.
- d) B. Atxaga, J. Sarrionandia, A. Lertxundi, R. Saizarbitoria.

80. Aukeratu erantzun ZUZENA. Haur eta gazte literaturan kokatzen den eta euskaratu den liburua da:

- a) *Galtzerdi suizida*, Mariasun Landa.
- b) *Sorginkerien liburua*, Aingeru Epaltza.
- c) *Ilargiaren alaba*, Toti Martínez de Lezea.
- d) *Izar-malkoak*, Fernando Morillo.

81. Aukeratu erantzun OKERRA, Nafarroako euskalkiei dagokienez:

- a) Koldo Zuazoren sailkapenaren arabera ekialdeko nafarreran Zaraitzu eta Erronkariko hizkerak sartzen dira.
- b) Bonaparte izan zen Nafarroako hizkerak aztertzen lehena, eta zazpi euskalki ikusi zituen herrialdean barrena: zuberera, ekialdeko behenafarrera, mendebaldeko behenafarrera, lapurtera eta gipuzkera.
- c) Nafarroako hizkeriei dagokienez Koldo Zuazok Bonaparteren sailkapenari bere horretan eutsi dio.
- d) Bonapartek Nafarroako hizkerak bi euskalkitan bereizi zituen: hegoaldeko goinafarrera (Gipuzkoako lau hizkera sartu zituen: Irun, Hondarribia, Oiartzun eta Lezokoak) eta Hegoaldeko goinafarrera (hiru azpieuskalkitan zatitua).

82. Aukeratu erantzun OKERRA, Euskalkiei dagokienez:

- a) Komunikabideetan: hizkuntza-erregistroa hautatzerakoan, kazetariak-eta erabakiko dute zein ataletan, non eta noiz erabili euskara landua (batua nahiz euskalkia) eta zeinetan, non eta noiz lagunartekoa.
- b) Administrazioan: bidezkoa da tokian tokiko administrazioek bertako euskalkia erabiltzea herritarrekiko harremanetan, batik bat ahozkoetan.
- c) Irakaskuntzan: hezkuntza-komunitateak, egoeraren arabera, beharko du bideratu hezkuntza-prozesu bakoitzari dagokion erregistroa, batez ere lexikoan eta esapideetan.
- d) Euskaltzaindiak 123. arauan jasotzen du euskalkien erabilera Irakaskuntzan, Komunikabideetan eta Administrazioan.

83. Aukeratu erantzun ZUZENA. Zein araudik ezartzen du Nafarroako Foru Komunitatean helduei euskara irakasteko curriculumak?

- a) Ekainaren 22ko 102/2009 Foru Aginduak.
- b) Abenduaren 15eko 463/1998 Foru Aginduak.
- c) Uztailaren 5eko 365/2002 Foru Aginduak.
- d) Maiatzaren 16ko 42/2011 Foru Dekretuak.

84. Aukeratu erantzun ZUZENA. Nafarroako Foru Komunitatean helduei euskara irakasteko curriculuma (HENAC) ezartzen duen Foru Dekretuaren arabera:

- a) Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua erreferentzia hartuta, HENACek honako gaitasun mailak deskribatzen ditu: A1, A2, B1, B2, eta C1.
- b) A1 mailatik C2 mailara bitarteko erabiltzaileak deskribatzen ditu: oinarrizkoa, independentea, gaitua eta aditua.
- c) Ahozko eta idatziko ulermena, ahozko eta idatzizko adierazpena, ahozko eta idatzizko elkarreragina eta ahozko eta idatzizko bitartekotza lantzen dira.
- d) HENACek Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuak ematen dituen gidalerroak haizeberritzen ditu.

85. Aukeratu erantzun ZUZENA. Nafarroako Foru Komunitatean helduei euskara irakasteko curriculuma (HENAC) ezartzen duen Foru Dekretuaren arabera:

- a) Hiru zehaztapan maila daude, behar orokorrenetatik zehatzenetara egokituz.
- b) Kalifikazio irizpide zehatzak ematen ditu definitutako maila guztietan.
- c) A1 mailatik C2 mailara bitarteko hizkuntza-jarduerak eta estrategiak ezartzen ditu.
- d) Ahozko eta idatzizko elkarreragina bitartekotzaren barruan ezartzen du.

86. Aukeratu erantzun ZUZENA. Euskarari dagokionez, zein araudik jasotzen ditu hizkuntzen jakite maila egiaztatzen duten titulazioak eta ziurtagiriak?

- a) Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak.
- b) Otsailaren 28koa 30/2011 Foru Aginduak.
- c) Abenduaren 22ko 1041/2017 Errege Dekretuak.
- d) Ekainaren 29ko 72/2022 Foru Dekretuak.

87. Aukeratu erantzun ZUZENA. Euskarari dagokionez, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan ezarritako mailekiko baliokidetasunak jasotzen dituen araudian, zein maila aipatzen dira?

- a) B1, B2, C1 eta C2.
- b) A1, B1, B2, C1 eta C2.
- c) A1, B1, B2.1, B2.2 eta C1.
- d) A1, B1, B2.1, B2.2, C1 eta C2.

88. Aukeratu erantzun ZUZENA. Nork eta nola igor dezake Nafarroako Gobernuaren EGA?

- a) Hezkuntza Departamentuak hiru proba dituen azterketa bat gaindituz.
- b) Hezkuntza Departamentuak D ereduko Batxilergoko ikasketak gaindituz.
- c) Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialak D ereduko Bigarren Hezkuntzako ikasketak baliokidetuz.
- d) Nafarroako Unibertsitate Publikoak gutxieneko kreditu kopuru bat euskaraz egitearen truke.

89. Aukeratu erantzun ZUZENA. Araudi hauetako zeinek baliokidetzen du Nafarroako Gobernuaren EGA C1 mailarekin?

- a) Maiatzaren 19ko 159/1988 Foru Dekretuak.
- b) Abenduaren 31ko 1.329/1988 Foru Aginduak.
- c) Ekainaren 22ko 102/2009 Foru Aginduak.
- d) Ekainaren 29ko 72/2022 Foru Dekretuak.